



APIRILAK 28

////LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA////

SISTEMA HONEK GAIKOTU ETA HILTZEN GAITU

Datorren apirilaren 28a, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Eguna, aldarrikapen, mobilizazio, eta lan-prekarietatearen ondorioz beren lanpostuetan hil eta osasuna galdu duten pertsona guztiak omentzeko eguna izango da, berriro ere. Koronabirusaren pandemia betean, batez ere gaur egun oraindik lehen lerroan lanean jarraitzen duten pertsona guztien lana aitortu nahi dugu, emakumeak gehienak, kutsatzeko arrisku handia dutenak, eta horietako asko eta asko behar bezalako segurtasun-neurririk gabe ari direnak. Lehentasunezkoa da konfinamendu garaiko onarpen soziala eta txaloak haien lan-baldintzak hobetzera bideratzea, eta, horretarako, premiazkoa da funtsezko zerbitzuak publiko egin, osasun eta hezkuntza-sistemaren behin-behinekotasan neurrigabea amaitu, eta putre-funtsak eta negozioia egiteko joera oro zaintza-sistematik ateratzea.

Egungo egoeran, ezin dugu ahaztu langileen osasun eta bizi-baldintzek okerrera egin dutela oro har. Horren erakusgarri dira Hego Euskal Herrian 2020an lan-istripuetan hildako 70 pertsonak eta ezin ahaztu, **Joaquín Beltranek desagertua jarraitzen duela Zaldibarko zabortegean duela 14 hilabete**. Amiantoaren eraginpean egotearekin lotutako beste 28 heriotzak, onura ekonomikoa gainerako guztiaren aurretik lehenesten duen sistema honen biktima direnak. Zentzu horretan, koronabirusa duela urte batzuetatik hona bizi izan den krisi sanitario, ekonomiko eta sozialaren eragilea baino ez da, kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka, eta lan-esparru osoan hedatzen den babesgabetasuna eta zaurgarritasuna berriz ere agerian utzi dituen tsunamia.

Feminizatutako eta pribatizatutako sektoreetako plantillek, hala nola adineko pertsonen egoitzak, etxeko laguntza-zerbitzua, etxeko lana, merkataritza, garbiketa eta ostalaritza; arautu gabeko sektoreetakoek, salgaien garraioa eta banaketa esaterako, eta baita multinazional handien esku dagoen industria-sektoreetakoek ere, lehen eskutik jasaten dituzte prekarizazioa, esplotazioa, eskubideen galera, enpleguaren suntsiketa eta segurtasun-neurrietan ematen den desinbertsioa. Egoera hori iraultzeko ezinbestekoa da lan-erreformak indargabetea, kendutako eskumenak berreskuratzea, elkarrizketa sozialeko politika ez-eraginkorrak haustea, eta lantokietako segurtasun-baldintzak kontrolatzeari esleitutako baliabide publikoak handitzea.

Erakunde publikoek pandemiarekin lotuta egindako kudeaketa negargarria deitoratu baino ezin dugu egin. Birusarekin elkarbizitzeko estrategia patronalaren adostasunarekin diseinatu zen, eta gaixotasunak aurrera egin eta kutsadurak eta heriotzak areagotu arren, funtsezko ez den jarduera ekonomikoari berrekitea eta eustea erabaki zen. Gaur egun, mutuek eta prebentzio-zerbitzuek desagertuta jarraitzen dute, eta jakinarazpen-sistemek huts egiten dute; beraz, oraindik ez dakigu zenbat pertsona hil diren koronabirusa lanpostuetan kutsatzeagatik. Gardentasun faltaz harago, berriki jakin dugu EAEn 2020ko urritik 2021eko urtarrilera bitartean gertatutako agerraldien% 70 baino gehiago lan-arloan gertatu zirela.

Hori dela eta, lantokietan inolako esku-hartze publikorik ez egotea eta herritarrei eskubide zibil eta politikoko mugatzea koherentea ez dela salatu nahi dugu. Herritarrei milaka zehapen-prozedura irekitzea eta enpresen aurka koronabirusaren aurkako babes-neurriak ez betetzeagatik diziplina-neurririk ez egotea guztiz bateraezina da. Zero COVID estrategia bat behar da, eta, horretarako, ezinbestekoa da ikuskapen-lanei esleitutako bitartekoak Europar Batasuneko batez bestekoarekin parekatzea, eta ezarritako ekoizpen-sistemaren gainean administrazio publikoek behingoz lan eta osasun arloko agintaritza gisa jardutea.

Etorkizuna ez da itxaropentsu ageri. Bankuak erreskatatu eta desberdintasunak areagotu zituen aurreko krisitik ondorioak atera behar ditugu, eta gizarte-mobilizazioa bultzatu, bizitza erdigunean jarriko duten politika publikoak eskatzeko. Hori dela eta, datorren apirilaren 28an ELA-LAB-ESK-STEILAS-EHNE-HIRU sindikatuok mobilizazioak egingo ditugu Hego Euskal Herriko 4 hiriburuetan, urtarrilaren 15ean Gasteiz eta Iruñeko Gobernuari helarazitako aldarrikapen hauen alde, eta hil eta gaixotzen gaituen sistema horren aurka.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

LAB

steilas

esk

ehne
EUSKAL HERRIKO
NEKAZARITZEN ELKARTASUNA

HIRU